

@@@AGINDUA, 2010eko otsailaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Amorebieta-Etxanoko (Bizkaia) «Orue Eskola» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena emateko dena.@@@

Amorebieta-Etxanoko (Bizkaia) «Orue Eskola» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titularra den «Asociación de Ikastolas Católicas» erakundearen ordezkariak abiarazi duen espedienteaz aztertu da, non baimena eskatzen baita ikastetxearen titulartasuna aldatzeko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (1992ko apirilaren 9ko BOE); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Amorebieta-Etxanoko «Orue Eskola» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena ematen da: egun, «Asociación de Ikastolas Católicas» erakundeak du titulartasuna, baina, aurrerantzean, «Pertsonen Garapenerako Ikerketa Ta Garapen (ITG) Taldea» erakundeak izango du, eta ikastetxea eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko du. Ikastetxea Amorebieta-Etxanoko (Gipuzkoa) Orue Auzunean dago, San Migel Dueda auzoan, eta 48016765 kode-zenbakia du.

2. artikulua.- Titulartasun-aldaketa Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da, baina horrek ez du inolako eraginik izango ikastetxearen ohiko jardunean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindun honek 2010eko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 26a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.